

EUSKARA

# Bide Otik

Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira

2020 **4** OTSAILA > **25** MARTXOA

 Bilbao

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO





# Bideo-sorkuntza, erreala dena kontatzeko artea

BideOtik, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren bideo-sorkuntzako programa, duela bost urte sortu zen, interesa baitzegoen ikus-entzunezko bestelako narratibei eta istorioak kontatzean bideo-tresna erabiltzeko dauden beste modu batzuei begiratzeko. Halaber, espazio bat sortu nahi zen ikusleak eta proiektuen atzean dauden pertsonak elkartzeko. Leku bat, ikus-entzunezko sorkuntzak partekatzeko, eta horrela, elkarriketa bultzatu ahal izateko sorkuntza-prozesuen eta film-ibilbide oso desberdinen inguruan. Urte hauetan, ikus-entzunezko proiektuez gozatu nahi dutenen eta ikus-entzunezko produkzioaren nondik norakoak ezagutu

nahi dituztenen interesa piztu du programak.

2018an, Zentroaren zuzendaritza aldatu zenean, hausnarketa-prozesu bati ekin zitzaion, besteak beste, Azkuna Zentroaren ibilbidea balioesteko eta programazioa optimizatzeko, pertsonen eta kultura garaikidearen arteko loturak sortuz, testuinguruan eragiteko eta gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta dibertsuagoa eraikitzen laguntzeko.

Hausnarketa horren ondorioz, proiektu berriak abian jarri dira, eta beste batzuk eguneratu egin dira, hala nola BideOtik. Aldi berri hau definitzen duen sorkuntza

garaikideari emandako babesak ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruan parte hartzera bultzatu gaitu, eta deialdi publiko bat egin dugu lehen aldiz. Bideotik, dagoeneko, programa sendoa da Zentroan; berrogeita hamar profesional eta ikasle inguru etorri dira, era askotako ikus-entzunezko piezak erakustera. Deialdi honi esker, ustekabeko lankidetzak izateaz gain, programak deialdia egiteko duen ahalmen handia egiaztatu ahal izan dugu.

Tokiko eta nazioarteko artisten eta bideo-sortzaileen 300 lan baino gehiago aurkeztu dira. Horien artean, pieza batzuk aukeratu dira, astean zortzi saiotan proiektatzeko.

Film dokumental luzeak eta laburrak dira, besteak beste, animazioko filmak, biopic-ak eta familia-istorioak, horietako zenbait opera primak. Lanen aukeraketan, bereziki baloratu ditugu 2017az geroztik garatutakoak, azken urteotan 'errealaren zinea' edo 'errealitatearen zinea' deritzonari eskainitakoak. Ikuspegi estetiko batetik eta gaur egungo ikus-entzunezko praktikatik sortuak dira, eta esperientzia pertsonalekin, biografiekin eta bizitza-istorioekin lotutako gaiak jorratzen dituzte.

Hain zuzen, hori da programa irekitzeko ditugun hiru filmen kasua: Raúl de la Suenteren *Woman* (2019); Víctor Suarezren *Brothers in Syria* (2018);

eta Natxo Leuzaren *Born in Gambia* (2019). Errepresio- eta indarkeria-egoera etengabe bizi diren edo jaioterriko gatazketatik ihes egin behar duten biztanleen errealitatea islatzen dute.

Caroline Reucker errealizadore alemanaren *Le ciel, la terre et l'homme* (2018) filmean, Marokoko basamortuan bizi diren familien bizimodua ezagutuko dugu, nomada, soila eta bizirautea zuzendua, baita haien nahiak eta kidego-sentimenduak ere.

Laura García Andreu eta Inés Peris Mestre zuzendarien *[M]otherhood* (2018) film komisariatua emango dio jarraipena programari. Filmak amatasunik eza normalizatzea aldarrikatzen du, ama ez izatea erabakitzen duten emakumeak auzitan jartzen jarraitzen duen gizartearen mitoak desegiten dituen dokumental-proiektu batean. Film hau hautatu da gai horri heltzeko duen moduagatik -hain gai sentibera eta erreala, non mugak gainditzen dituen-, hainbat esparrutako belaunaldiei eta profesionalei ematen baitie ahotsa.

Jorge Moneo -*Orbainak* (2019)- eta Oier Fuentes -*Azken saskia* (2017) eta Gogor atzea (2018)- euskal bideo-sortzaileek iraganeko belaunaldien oroitzapenak eta bizipenak berreskuratu dituzte, haien istorioek denboran barrena irauten baitute.

Etxekoa, migrazioa, zaintza, zahartzea, ahanztura. Gai horiek guztiak estu lotuta daude familien eguneroko bizitzetan.

*Andrómedas* (2019) lanean, Clara Sanz zuzendariak arretaz aztertzen du nola bizi diren oreka hauskor batean, bietako bat desagertzen denean kolokan jartzen den orekan. Marc Serenak Juan Tomás de Ávila Laurel errefuxiatu politikoari ematen dio ahotsa, Teodoro Obiang-en diktadura salatzeagatik jazarria denari. Bere lana, *El escritor de un país sin librerías* (2019), Ekuatore Gineako errealtatean murgiltzen da, duela 50 urte Espainiako kolonia izan ondoren, Afrikan isolatuen den herrialde batean.

Bestetik, 'nucbeade colectivo'-ren (Quiela Nuc eta Andrea Beade) *Una dedicatoria a lo bestia* (2019), María Moneoren Patchwork, eta Celia Dosalen eta Roxana Popelkaren *Capas* (2018) lanak femeninotasunaren ikuspegi desberdinak dira, belaunaldi eta bizi-esperientzia desberdinetako emakumeek emanak. Programarekin amaitzeko, Oskar Alegria euskal zuzendariaren *Zumiriki* (2019) dokumentala estreinatuko da Euskadin, *[M]otherhood*-ekin (2018) batera komisariotzaren bidez hautatutako lana. Bizitza birpentsatzeko eta naturarekin berriz lotzeko film irudimentsua eta iradokitzaila da, Venezuelako azken Mostran

txalotua. BldeOtik programaren etapa berri honen balioekin bat datorren filma aukeratu da programa ixteko.

BldeOtik eboluzionatu egin da, baina bere balio diferentzialari eutsi dio, ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruko trukerako eta elkarrizketarako elkargune gisa, eta kulturaz eta gizarteaz hausnartzeko eta eraldatzeko espazio modura. Hori dela eta, pieza hauen guztien sortzaileak saioetan egongo dira, haien motibazioetara eta sormen-prozesuetara hurbilduko gaituzte, eta zuzenean jasoko dute programa honetan parte hartzen duten ikusleen feedbacka. Espero dugu eragin-truke interesgarria eta aberasgarria izatea bi aldeentzat.

BldeOtik-en egongo gara.

# 1. saioa

BIdeOtik zabaltzeko, hiru filme izango ditugu. Horietan, ekoizpena eta sormen artistikoa lankidetzan humanitarioarekin lotuta doaz, etengabe errepresio edo indarkeria egoeran bizi diren edo jatorrizko herrialdeetako gatazka egoeretatik ihes egin behar izan duten herritarren errealitateak azalduz.

**Woman (2019)**

Raúl de la Fuente

**Brothers in Syria (2018)**

Víctor Suárez Ballesteros

**Born in Gambia (2018)**

Natxo Leuza



# Woman

## Raúl de la Fuente

2019 // Dokumentala // Espainia

Mozambiken, lehen presidentearen alaba Josina Machelen kasuak egiaztatzen du genero indarkeriak ez duela gizarte mailarik bereizten. Beste hainbat emakumek egunero bizi dute izu-ikara, euren burua babesteko baliabiderik gabe. Generoak jaiotzatik definitu egiten ditu; gizarteak makurrarazi nahi ditu; matxismoak hil egiten ditu.

Orain, emakume poliedriko, ahaltso, grinatsu eta borrokalarien belaunaldi berri batek euren ahotsa ozenago entzunarazi du, desberdintasunen aurka borrokatzeko, hip-hop-a, rapa, poesia, justizia eta mugimendu sozialak bitartekotzat hartuta.

Otsailak 4, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta [golem.es](http://golem.es)

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 20'

Z/A: Raúl de la Fuente

G: Ivan Zahinos, Amaia Remírez, Raúl De La Fuente, Nagore Eceiza

I: Josina Machel, Dama do Bling, Iveth Mafundza, Natalia Malembe, Enia Lipanga, Graça Julio

PZ: Amaia Remírez

E (Mozambique): Violeta Bila

MU: Nagore Eceiza, Raúl de la Fuente

M: Mikel Salas, Dama Do Bling, Iveth

S: Ernesto Santana

E: KANAKI FILMS

[JB Portuguesa. Gaztelaniako azpitituloak](#)



[kanakifilms.com](http://kanakifilms.com)





«Arteak gizartera iristeko botere brutala du, genero indarkeriaren aurkako matxinada gisa. Erakutsi nahi dugu emakumea ez dela bakarrik sozialki definitu den bezalakoa, gizartea esnatu nahi dugu, eta erakutsi emakumea mundua eraldatzeko gai dela».

**Raúl de la Fuente** zuzendaria, gidoigilea eta muntatzailea da. Haren *Another day of life* film luzea Canneseko Sail Ofizialean (2018) estreinatzen zen; Animazioko Film Onenaren EFA, Goya eta Platino sariak irabazi ditu, Ikusleen Saria Donostiako Zinemaldian (2018). *Nömadak Tx* filmak 2. postua eskuratu zuen IDFAko Top20an, eta Zuzendari Hasiberri Onenaren saria Guadalajarako Nazioarteko Zinema Jaialdian. *Minerita* izeneko lehenengo film laburrarekin Goya saria irabazi zuen, eta Oscarretarako shortlist-ean egon zen.



**Raúl de la Fuente**



# Brothers in Syria

**Víctor Suárez Ballesteros**

2018 // Dokumentala - Animazioa. Opera Prima  
// Espainia

Kasko Zurién antolakunde zibila sortu zenez geroztik bertako kide diren bi anaia siriar erreskate batera doaz Aleppon, hiriak jasandako bonbardatze baten ostean. Gertatu den lekura iritsi diren une berean, bigarren erasoaldi bat jasan dute ustekabeen.

Batzuetan, norbaiti laguntzen ari zarenean, zuk zeuk ere laguntza behar izaten duzu.

Otsailak 4, asteartea  
19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

---

#### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala/Animazioa, 5'.  
Opera Prima

Z/G/M/S: Víctor Suárez  
Ballesteros

M: Marta Torres García

E: Al Berro Producciones

---

JB Ingelesa. Gaztelaniako  
azpitituloak

---

 alberroproducciones.com



INTERNATIONAL FILM FESTIVAL ZOOM-ZBLIZENIA (Polonia)  
Lecce Film Fest – Festival del Cinema Invisible (Italia)  
Ethno Kino (Suitza)  
FES! (Espainia)  
DOCS Valencia (Espainia)



**Víctor Suárez** (Valentzia, 1986).

Goi-mailako soinu gradua amaitu zuen (2008, Henri Matisse, Paterna), eta ikasketa horiek Diseinatzaile Grafikoko Laguntzaile izateko ikastaroarekin eta Produktu Elektronikoaren Garapeneko goi-mailako graduarekin (2010) osatu zituen, praktikak Orbital Sounden (Londres) eginez. Ikus-entzunezkoen atalean, freelance gisa, genero ugari biltzen ditu, zuzeneko musika eta ekitaldien grabaketan espezializatuz, baita genero dokumentalean ere, zuzendari, soinu-teknikari, kamera edo editore rolekin. Ikus-entzunezko Ekoizpenaren uztako kide aktiboa da, eta hainbat dokumentaletan parte hartu du, hala nola *Carrícola*, *un pueblo en transición*, *Pedales de vida* eta *Francis et la menuiserie* dokumentaletan, bai eta bideo-tailer parte-hartzaileetan ere, ikastetxe eta elkarteekin.

«Grezian Siriako errefuxiatu bati egindako elkarrizketa gisa hasi zen *Brothers in Syria* filmearen helburua, jendea gatazkaren inguruan sentsibilizatzea lortzea da. Protagonistak transmititzen duen mezu indartsu horri ‘bozgorailu’ bat jarri ahal izatea izan da onena. Dokumentu laburra, album ilustratu bat ere bada orain».



**Víctor Suárez Ballesteros**



# Born in Gambia

Otsailak 4, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

## Natxo Leuza

2018 // Dokumentala // Espainia

Hassan kalean bizi den 14 urteko mutikoa da. Haren anaiari sorgina izatea leporatu zioten, eta bere aurrean bizirik erre zuten. Hassanek ere deabrua barruan izan zezakeenaren susmoa zuen aitaordeak, eta, horrenbestez, ihes egin behar izan zuen kaleetan zehar hil ez zezaten, soinu grabagailu bat soilik hartuta.

*Born in Gambia* gogoeta bide bat da haurren oinarriko eskubideak errespetatzeko ahaleginean, eta guk guztiok, baina gobernuak batik bat, munduko edozein bazterretan konpromisoak har ditzagun haurren aurkako era guztietako indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko.

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 27'

Z/G: **Natxo Leuza**

PE: **Patricia Irurzun, Bilale Keita**

EA: **Galapán**

P: **Miguel Ángel Santos**

DG: **Fermin Urdanoz**

**JB Wolof-Afrikaans.**

**Gaztelaniako azpitituloak**



borningambia.com



EGENSTROOM IFF (Herbehereak)

International Film Festival Zoom-Zblizenia (Polonia)

Curtas Fest - Festival Internacional de cine y cómic de Vilagarcía de Arousa (Espainia)



«*Born in Gambia* hausnarketarako bide bat da hauren oinarrizko eskubideak errespeta daitezen, eta gu guztiok, baina batez ere gobernuek, konpromisoak har ditzaten munduko edozein bazterretan gertatzen den hauren aurkako indarkeria oro prebenitzeko eta desagerrarazteko».

**Natxo Leuza** errealizadore, gidoigile, muntatzaile eta zinema postprodukzioko arduradun moduan egiten du lan. Ibilbide luzea du dokumentalen arloan, eta munduko hainbat herrialdetako proiektu ugari egin izan du lan: Sierra Leona, Benin, Togo, Mauritania, Gambia, Peru, Guatemala, El Salvador, Qatar, Haiti, Alemania eta abarretan. Une honetan, *Born in Gambia* proiektua bukatzen ari da, eta Enrique Villareal 'El Drogas' en film luze musikala zuzentzen.



**Natxo Leuza**

# 2. saioa

XXI. mende bete-betean, badira bestelako bizitzeko moduak. Badira euren borondatez bizitzeko era nomada, soila eta iraupenekoa aukeratzen duten familiak eta erkidegoak. Marokoko basamortuko paisaien bitartez, eguneroko bizitzara hurbil gaitezke, familia horietako kideen desiretara eta kidetza sentimenduetara.



**Le ciel, la terre et l'homme (2018)**  
Caroline Reucker

# Le ciel, la terre et l'homme

**Caroline Reucker**

2018 // Dokumentala // Alemania, Maroko

Ait Seghrouchen tribuaren bizimodu berezia atzemateko zinema-ahalegina da. Ahmed, Yusef, Lancen eta Indirren historiak ezagutuko ditugu, haien egunerokoa animaliekin lan eginez eta basamortu marokoarreko paisaia belikoen barnean biziz. Lehenaldia orainaldiarekin nahasten da hemen, eta, ezarian-ezarian, bizimodu garaikidea sartzten da bizitzeko estilo tradizionallean.

Otsailak 11, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

## FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 70'

Z: **Caroline Reucker**

E: **Caroline Reucker, Gotz Reinicke**

E: **Filmakademie Baden-württemberg GmbH**

Argazki Diseinua: **David Finn**

Soinu Diseinua: **Volker**

**Ambruster**

M: **Moritz Laux, Max Clouth**

JG Arabierrera. Gaztelaniako  
azpiztituloak



caroline-reucker.de



Do Pão - International Documentary Film Festival (2019)

Edera Film Festival. Official Selection (2019)

Taiwan International Ethnographic Film Festival (2019)

European Film Festival Palic (2019)

Dok Leipzig (2018)

Beste batzuen artean





«*Le ciel, la terre et l'homme* Marokoko basamortu paisaiaren inpresioez jabetzen saiatzen da –non etengabe jotzen du haizeak–, baita han bizi diren pertsoez ere, haien istorioak kontaturik».

**Caroline Reucker** (Marl, Ipar Renania-Westfalia, 1985). Freelance eran lan egiten duen zinemagilea, zuzendaria eta zinema ekoizlea da. 2006an bigarren hezkuntzan gradua eskuratu, irudi eta soinu diseinatzaile arloko ikasketak egiten hasi zen; zinemako eta telebistako ekoizpen batzuetan lan egin zuen. 2010etik 2016ra bitartean, zinema dokumentala ikasi zuen Ludwigsburgeko 'Filmakademie Baden-Württemberg' ikastetxean. Zinemagile independente bezala lan egiten du Ludwigsburgeko Baden-Württemberg, eta bertan bizi da.



**Caroline Reucker**

# 3. saioa

Dokumental proiektu honen helburu nagusiak honako hauek dira: seme-alabarik izan nahi ez duten emakumeen hautua normalizatzen laguntzea, amatasunaren inguruan dauden mito ugari deseraikitzea eta ama ez izatea erabaki duten emakumeak auzitan jartzen jarraitzen duen gizartean mito horiek eragin dituzten tabuak zalantzan jartzea.

# **[M]otherhood (2018)**

Inés Peris eta Laura García



# [M]otherhood

## Inés Peris eta Laura García

2018 // Dokumentala // Espainia

*[M]otherhood* filmean bilduta daude seme-alabarik izan nahi ez duen emakume bat inoiz ere gehiago auzitan ez jartzea eragingo dizuten erantzunak. Emakume talde batek hitz egitea erabaki du, eta horien argudio sendo eta zorrotzek sastakai bat sartzen diote amatasun garaikideko idealari.

Tabuak hausten dituzte, amatasun sena eztabaidan jartzen dute, eta damuaz ari dira.

Otsailak 18, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 55'

Z: **Laura García Andreu, Inés Peris Mestre**

E: **Suica Films**

S: **Emilio Alena**

M: **Sara Marco Caballero**

[JB hainbat hizkuntza.](#)

[Gaztelaniako azpitituloak](#)

 [m-otherhood.com](http://m-otherhood.com)



**Inés Peris Mestre** errealizadorea eta kamera. Irudi arloko Goi Teknikaria. Bideo eta telebista masterra. 15 urte baino gehiagoko esperientzia du ikus-entzunezko industriari; kamera, edizio eta errealizazio alorrak konbinatu izan ditu hainbat ekoizpen etxetan eta 8 urte baino gehiagoz Valentziako telebista publikoan. 2014an, nazioartean saritu zuten *Five Days to Dance* (2014) dokumentalean parte hartu zuen.

**Laura García Andreu** kus Entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta antropologoa, ikus-entzunezko esparruan 10 urte baino gehiagoko eskarmentuarekin. TVW bezalako telebistetan eta Communication Package agentzian (Brusela) egin du lan. Zinema etnografikoko dokumentaletan espezializatu zen Liman. Literaturari buruzko *Una habitacio propia* saiaren gidoilaria da Valentziako telebista autonomikoan (À Punt Mèdia). Komunikazio Zientzien Saileko irakaslea da Castelloko UJIn.

«Gizakioi jarraitu behar dugun bide bat aurreikusten zaigu; dirudienez, batik bat emakumeentzat eraturako bidea da. Ematen du ez garela emakume osoak seme-alabarik izan ezean. Eta presio sozial hori jasanezina bihurtzen da une batzuetan. Amatasuna aukera izan behar du, ez betebehar soziala».



**Inés Peris eta Laura García**

# 4. saioa

Euskarazko saio honetan, memoria, oroitzapenak eta erreskatatu ditugun bizipenak erabilia familiako esperientzietan barna goaz, bizitza gogor eta zaileko lehenaldira. Lehengo belaunaldiei egindako omenaldia da; horien historiek bizirik diraute denboran zehar.

## **Orbainak (2019)**

Jorge Moneo

## **Gogor atzea (2018)**

Oier Fuentes

## **Azken saskia (2017)**

Oier Fuentes



# Orbainak

## Jorge Moneo

2019 // Dokumentala // Euskadi

Osabak, aitak eta semeak hurrenez hurren bizi izan zituzten istorio pertsonalek denboran zehar marraztuko den esperientzia tragikoa osatuko dute. Lerro pitzatu horrek familia albumeko zimur bat dirudi, baina aitaren etxeko hormetako arrakala bat ere ematen du. Mendi bat zulatzen denean zabaldutako zauriaren tankera du, baina baita herri baten iruditeria kolektiboan dagoen orbain baten itxura ere, non salbazioaren ideiak borroka politikoan patu tragikoa aurkitzen duen. Zer dago lerro horren bukaeran? Gerrako kanta zaharrak nahikoak izango ote dira patu horri iskin egiteko?

*Orbainak* (2019) da bakarka egin duen lehen filma. Punto de Vista 2019an estreinatu zen, eta lehiaketako film espainiarren artean Argazkirik Onenaren saria eskuratu zuen Filmadrid 2019an.

Otsailak 25, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

---

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 29'

E/G/MU/A: **Jorge Moneo  
Quintana**

S: **Elorri Sarasola Barandiaran**

E: **Kleinen Filmak**

---

**JB Euskera. Gaztelaniako  
azpituloak**

---



Punto de Vista 2019

Festival Internacional de cine FILMADRID

L'Alternativa - Festival de Cine Independiente de Barcelona





«**Orbainak** duela gutxiko Euskal historia politikoari eta Euskal inkontziente kolektiboko zauriaren kontzeptuari egindako begirada zeharra da. Azken lau hamarkadetan gertatu denari buruzko erantzunak ematea baino gehiago, film honek zenbait galdera egin nahi ditu».

**Jorge Moneo Quintana** (Vitoria-Gasteiz, 1988), EHU-n Arte Ederretan lizentziatuta, ikasten jarraitu zuen gero UVigon eta Errumaniako Cluj-Napocako UADn. Bere ibilbidea ikus-entzunezko arteen eta zinemaren artean garatu du, eta bere lanak kultura erakundeetan ikusi ahal izan dira, bai eta hainbat nazioarteko jaialditan ere. 2017an, zinema-argazkilaritza arloko prestakuntza osatu zuen ESCACen, eta zinema dokumental arlokoa Bartzelonako UABeko masterrean. Filmografia: *Où est la jungle?* (Brasil, 2015- errerealizazio laguntzaile), *La Ciutat Interior* (2017), TVE ekoizpen kide zela IDFAn estreinatua (Herbehereak), *Orbainak* (2019), *Begirada* (2020) eta *Almanaka* (garatzen ari da).



**Jorge Moneo**



# Gogor atzea

## Oier Fuentes

2018 // Dokumentala // Euskadi

Bizipenak, oroitzapenak, isiltasun behartuak edo batere erraza ez den bitzta batean zaugarria bezain hautsiezina den memoriaren bidean nahita galdutako plezak.

Lan honetan, 6 minutu pasatxoan kontatzen da 6 ordu eta gehiagoan biloba batek 91 urteko amonarekin izandako elkarrizketa.

Otsailak 25, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 7'

Z/E: **Oier Fuentes**

M: **Claudio Nuez**

I: **Pilar Etxaburu, Monika Agirre**

JB Euskera. Gaztelaniako  
azpitituloak

 [katubi.eus](http://katubi.eus)



Euskal Zine Bilera 2018

Giza Eskubideak Herrira III. Nazioarteko Korto Lehiaketa, Ordizia 2018

HUHEZINEMA 2018



«**Bizitza osoko oroimen ariketa bat, belaunaldiz belaunaldi hiltzen eta irauten duen guztiaren oroimen eta omenaldi gisa balio duena**».

**Oier Fuentes.** Lehenengo lanak Lourdes Lovers kolektiboaren barruan egin zituen. Gero, dokumentaletan eta ildo esperimentaletan jarraitu izan du lanean, fikziozko lan batzuk txandakatuz. Azken urteetan sari batzuk irabazi izan ditu, eta haren filmak nazioarteko hainbat jaialditan aurkeztu izan dituzte.



**Oier Fuentes**



# Azken saskia

## Oier Fuentes

2017 // Dokumentala // Euskadi

Jesus Mari Nafarroako azken saskigile artisaua da. Azken saskia eginda, egiteko, sentitzeko eta izateko modu bat bukatu da.

Jesus Marik azken urteetan gizartean jasan izan diren aldaketez hitz egin digu, eta dokumentalaren bitartez gogoeta bat proposatzen da ekoizpen ereduaren eta artisau lana desagertzearen inguruan.

Otsailak 25, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

---

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 10'  
Z/E: Oier Fuentes  
I: Jesús Mari Sein

---

JB Euskera. Gaztelaniako  
azpítituloak

---

 katubi.eus



Laburbira (32 proiektzio + ETB)  
Festival International Khanty Mansiysk 2017  
Festival de Films Pour L'Environnement, Québec 2017



«Gaur egungo gizarteak, kontsumo ohiturek eta industrializazio mailak talka egiten dute Jesus Mari bezalako artisauekin. Gutxi dira, apenas gelditzen dira gure inguruan, eta haiek naturarekin gordetako harremana, mundua ulertu eta sentitzeko modua desagertuz doa».

**Oier Fuentes.** Lehenengo lanak Lourdes Lovers kolektiboaren barruan egin zituen. Gero, dokumentaletan eta ildo esperimentaletan jarraitu izan du lanean, fikziozko lan batzuk txandakatuz. Azken urteetan sari batzuk irabazi izan ditu, eta haren filmak nazioarteko hainbat jaialditan aurkeztu izan dituzte.



**Oier Fuentes**

# 5. saioa

Etxekoa, migrazioa, zaintzak, ahanztura. Kontu horiek guztiak estu-estu lotuta daude familietako eguneroko bizitzekin. Horietako bat desagertzen denean, balantzan dabilen oreka hauskor batean bizi dira elkarrekin.

# **Andrómedas (2019)**

Clara Sanz



# Andrómedas

**Clara Sanz**

2019 // Dokumentala - Opera Prima // Frantzia, Espainia

Mantxako herri txiki batean, emakume batzuk bildu dira etxe batean. 90 urteko Rosita Mariarekin bizi da, azken zazpi urteetan zaindu duen Ekuadorko emakumearekin. Eta Rositaren biloba Clara bi horien arteko harremana filmatzen ari da.

Martxoak 3, asteartea  
19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

## FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 85'. Opera  
Prima

Z: Clara Sanz

E: Eugenie Michel Villette

P: Les Films du Bilboquet

S: Thomas Fourel

## JB Gaztelania



lesfilmsdubilboquet.fr



Festival Margeles 2019

Gijon Film Festival 2019

L'Alternativa - Festival de Cine Independiente de Barcelona





«Clara Sanz-en lehen film luze hau bizitzaz, egiaz eta maitasunez betetako dokumental franko-espainiarra da, Mantxako herri batean filmatua eta 90 urteko amonarengan eta haren zaintzailearengan fokatua»

A.Rivera, CineEuropa

**Clara Sanzek** giza zientziak, komunikazioa eta ikus-antropologiako ikasketak egin izan ditu. Frantziako Lussas-eko Sormen Dokumentaletako masterra egin zuen, eta Lumiere elkarteko kidea da. Elkarlanean aritu izan da hainbat jaialdi eta elkarterekin, hala nola Marsellako Videodrome 2, Curitibako Mostra Ficçao Viva eta Ardeche Images elkarteak; azken horrekin ari da lanean gaur egun, zinema tailerrak egiten. *Andromedas* bere lehenengo film luzea du.



**Clara Sanz**

# 6. saioa

Teodoro Obiangen diktadura salatu zuelako Espainian errefuxiatuta bizi da Juan Tomás de Ávila Laurel, eta haren begiradak Ekuatore Gineako errealitatean barneratzen gaitu: orain dela 50 urte Espainiako kolonia izateari utzi zionez geroztik, Afrikako herrialde isolatuenetako bat da.

**El escritor de un país sin  
librerías (2019)**  
Marc Serena



# El escritor de un país sin librerías

**Marc Serena**

2019 // Dokumentala // Espainia, Ekuatore Ginea

Duela 50 urte Ekuatore Gineak Espainiaren independentzia lortu zuen, eta orain Afrikako herrialde isolatuenetako bat bihurtu da. Han barna sartuko gara, herrialde horretako idazle itzuliarena den Juan Tomás de Ávila Laurel laguntzaile dugula. 2011n Espainian errefuxiatu behar izan zuen Teodoro Obiangen diktadura salatzeagatik; munduko diktadurarik luzeena da, hain zuzen.

Haren liburuen bitartez ezagutu dugu oraindik ere bi mendetako azpiratze kolonialaren eraginaren menpe bizi den Afrikako bazter hau. Film honetan, animazioa, artxiboko irudiak eta nazioartean ezagunena den herrialde horretako Concha Buika kantariaren musika konbinatzen dira.

Martxoak 10, asteartea  
19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

## FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 79'

Z/G: Marc Serena

M: Pau de Nut

A: Josep Gutiérrez

## JB Gaztelania

 @guineadoc



L'alternativa Festival de Cine Independiente de Barcelona  
Festival Rizoma - Premio Rizoma de Cine  
Festival Gollut  
Semana Internacional de Cine de Valladolid - Seminci



**Marc Serenak** (1983) *Tchindas* (2015) filmarekin egin zuen debuta, Bilboko Zinegoak jaialdian estreinatuta. Pablo Garcia Perez de Lara zuzendari-kide zuela ondutako zinta hori Nigeriako AMAA Awardserako izendatu zuten, Afrikako zinemaren Oscartzat jotzen diren sarietarako. AEBetako TVCn eta PBSn eman zuten. Oraindik orain, zuzendari-kide izan da *Peces de agua dulce (en agua salada)* (2018) dokumentalean, eta saria lortu du Madrilgo FECIDISCOVIn, Zapping sarietan eta Telebistaren Akademian. Hiru liburu idatzi ditu, horietako bat *¡Esto no es africano!* da (Xplora), Afrikari buruzko erretratu bat, haren ezinezko amodioak bitarteko hartuta.

«la mende batez Espainiaren kolonia izan zen herrialde bati buruzko 'isiltasuna apurtu' nahi du film honek, eta gaur egun munduko diktadura luze eta itxienetako batenpean bizi dena».

La Marea



**Marc Serena**

# 7. saioa

Saio honetan ikuspuntu femininoko begirada askotarikoak ezagutu ditugu. Hainbat belaunalditako emakumeek norbere mundua nola ikusten duten, zer prismatik eta zer kezkarekin. Gure bizitzako etapaz etapa ileak duen garrantzia izan daiteke; edo gibel transplante baten inguruan bizi izan dutena.

Eta, ia azterlan arkeologiko moduan, San Fernando de Henaresen 40.eko hamarkadan zabaldu eta 1985ean atearak itxi zituen zentroan Emakumea Babesteko Patronatuan errepresiora behartutako emakumeen esperientziak, beldurrak eta egonezinak ezagutuko ditugu.

**Una dedicatoria a lo bestia (2019)**

nucbeade colectivo (Quiela Nuc eta  
Andrea Beade)

**Patchwork (2018)**

María Manero

**Capas (2018)**

Celia Dosal eta Roxana Popelka



# Una dedicatoria a lo bestia

Martxoak 17, asteartea  
19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

## nucbeade colectivo (Quiela Nuc eta Andrea Beade)

2019 // Dokumentala // Espainia

Arkeologia-lan bat balitz bezala, *Una dedicatoria a lo bestia* lanak 1944tik 1985era bitartean martxan egon zen San Fernando de Henaresen Emakumea Babesteko Patronatuaren egoitzan aurkitutako hainbat objektu jartzen ditu ikusgai.

Zer memoria afektibo aktibatzen dute 'souvenir' horiek, eta nola integra daitezke frankismoari, trantsizioari eta demokraziaren lehen urteei buruzko kontakizun historikoan?

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 11'

Z/G/E: Nucbeade Colectivo  
(Quiela Nuc y Andrea Beade)

I: Clara Dios y Suss Serrán

S: María Angulo y Clara Alonso


JB Gaztelania

 [quielanuc.es](http://quielanuc.es)



Alcances, Festival de Cine Documental. Laburmetrairik Onena  
IX Festival Márgenes





**nucbeade** [Quiela Nuc (1990) eta Andrea Beade (1988)]. Ikus-entzunezko baliabideen, instalazioaren eta performacearen bidez, nucbeade paisaia arautua suntsitzearen alde ari da lan egiten, beste forma eta hizkuntza batzuetan bizitzeko beharra ordezkatzeko. Horien lehen lana/manifestua, *War* (2017), nazioartean erakutsi zuten hainbat jaialdi, museo eta galeriatan, hala nola Kunstraum Kreuzberg/Bethanien (Berlin), Museum of Impossible Forms (Helsinki) eta Espositivo (Madril). *Una dedicatoria a lo bestia* (2019) euren azken piezak Film labur Onenaren Saria irabazi zuen Cadizko Alcances Zinema Dokumentalaren Jaialdian, eta Eskaner Sekzioan parte hartu Madrilgo Margenes IX. jaialdian eta *Pedagogías Feministas. Otras formas de hacer mundo* erakusketa kolektiboan (UMH, Elxe). Irakaskuntza arloan, *Lesboanimas* (2018) lana azpimarratu behar da. 1930etik 1980ra bitarteko Espainian izandako desira lesbikoari buruzko ikerketa-proiektua da; Injuve 2017 Sorkuntzarako Laguntzen artean hautatutako Weird Space proiektuan parte hartu zuen.

«Emakumeen sexu errepresiorako eraikitako espazio batek eskain al dezake iraultza formen arrastorik?».



nucbeade



# Patchwork

## María Manero

2018 // Laburmetraia-Animazioa // Euskadi

*Patchwork* Lolyren historia da, gibel transplantea behar duen 60 urte inguruko emakumearena. Historia 'emaileak' kontatzen du.

Zenbat organo transplantatu behar dira zu zeu izateari utzi eta beste pertsona bat izaten hasteko?

Martxoak 17, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

---

### FITXA TEKNIKOA

Laburmetraia/Animación, 8´

Z: **María Manero Muro**

---

JB Gaztelania

---



Alcine, Festival de Cine de la Comunidad de Madrid  
Festival de Málaga  
Festival Prime the Animation

---



**María Manero** EHU'n Arte Ederretan lizentziatua, han bertan ikus-entzunezkoetan espezializatu zen, eta animazioa ezagutu zuen. Orduz geroztik, hainbat proiektutan murgiltzea erabaki zuen, hala nola Mapping, antzerki biziduna, dokumentalak, musika klipak eta teknika mistoko proiektuak. Erresuma Batuko University of the West of England unibertsitateko Stop Motion Animazioko Masterra ikasi zuen, Nafarroako Gobernuaren Ikasketa Artistikoak Zabaltzeko Bekari esker. Jarraian, zuzendaritza ikasten jarraitu zuen Valentziako UPVko Animazio Masterrean, eta *Patchwork* proiektua garatu zuen han CAN Fundazioaren bekaekin.

«Animazioa mugarik gabeko mundu berri bat sortzeko aitzakia perfektua da».



**María Manero**



# Capas

## Celia Dosal eta Roxana Popelka

2018 // Dokumentala // Espainia

Madrilgo hainbat auzotako emakumeen bi belaunaldik zaletasun berbera dute: ilea zaintzea. Hala eta guztiz ere, ez da gauza bera guztientzat. Bakoitzak bere nortasunaren zati ezberdin bat bezala ulertzen du ilea, eta bere bizitzako hainbat pasarteren bidez, adina alde batera utzita, elkarrekin bat egitera daramaten loturak deskubrituko ditugu.

Martxoak 17, asteartea

19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 25"

Z/G: Celia Dosal Carabias,  
Roxana Popelka

MU: Paula Damiolini

M: *Me estoy peinando* by  
GENERADOR

A: Antonio Sáenz Jiménez

I: Virginia Payamp Sánchez,  
Gabriela Carbonero Jurado,  
Paula Dosal Pablo, Mayte López  
Fernández, Marte, Juana Ruíz-  
Tapiador, Alba Barrios López,  
Benita Haro Martín, Enriqueta  
Sánchez Gay, María Ángeles  
Bascarán Aramendi

JB Gaztelania

 @CAPASdocumental



Festival de Gijón  
Directed By Women Spain



**Celia Dosal Carabias** (Madril, 1998) bi film labur dokumentalen zuzendaria da: Institutuko azken hilabeteetan nerabeek etorkizunerako dauzkaten itxaropenak jorratzen dituen *Tanto sueño* (2016) (2017ko Madrilgo Udaletxeko Sortzaile Gazteen Lehiaketan film labur onenaren saria); eta *Capas* (2018), Roxana Popelkarekin batera zuzendutakoa. Era jarraian konbinatzen ditu ikus-entzunezko proiektuak eta fanzinea bezalako formatu plastikoak, bai eta programazioan gazteak sartzen dituzten proiektuetan parte hartzea ere, hala nola FesTeen (2015), Reina Sofia Museoko EQUIPO, Puwerty jaialdia edo Cinezeta.

**Roxana Popelka** (Xixón, 1966), badu esperientzia dokumentalak gauzatzen, erakusketa artistikoak eta performanceak egiten, bai eta poesia eta fikziozko liburuak argitaratzen ere. Orain dela gutxi bere zortzigarren liburua argitaratu du, *Preparados, listos, ya* (2017).

«Eskaintzen diegun denboragatik eta gure nortasuna osatzeagatik gure ohiko jardunean duten eragina ahazten zaigun eguneroko ekintza horiexek kontaktzea nahi dugu guk. Esate baterako, ilea zaintzea».



**Celia Dosal eta Roxana Popelka**

# 8. saioa

BideOtik ixteko, Oskar Alegria euskal zuzendariaren azken film luzea estreinatuko dugu Euskal Herrian: *Zumiriki*. Bizitza birpentsatzeko eta naturarekin birkonektatzeko irudimen handiko film inspiratzailea; txalo ugari jaso zuen Veneziako azken Mostran.

# Zumiriki (2019)

Oskar Alegria





# Zumiriki

## Oskar Alegria

2019 // Dokumentala // Euskadi

«Basoetara joan nintzen, asmo baten arabera bizi nahi nuelako; bizitzako funtsezko egitateei bakarrik aurre egiteko, bizitzak erakusteko izan zezakeena ikasteko gai ote nintzen ikusteko, eta, nire ordua iristean, ez nintzela bizi izan ez konturatzeko».

Horixe da *Walden* liburuaren hasiera, eta Thoreauk bezala, Oskar Alegria lau hilabetez bakarrik bizi izan zen basoan, bere sustraiekin eta naturarekin berriz lotzearen bila. Izenburuko ibai erdian dagoen 'Zumiriki' uharteko Crusoe naufragat bat, Alegriak erritu txikiz, aurkikuntzaz, oroitzapenez eta umore zentzu bereziz itxaroten duen ibaian. Bizitza birpentsatzeko irudimen handiko film inspiratzailea; txalo ugari jaso zuen Venezian.

Marxoak 25, asteazkena

19:00


Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

### FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 122'  
Z/G/F/MU: Oskar Alegria  
M: Ainara LeGardon, Xabier  
Erkizia, Mixel Etxekopar,  
Xavier Garcia, Justa Mentaberri  
S: Haimar Olaskoaga  
E: Emak Bakia Films


JB Euskara. Gaztelaniako  
azpтитuloak

 oskaralegria.com



Festival de Cine de Sevilla  
Festival de Cine de Venecia  
L'Alternativa - Festival de Cine Independiente de Barcelona  
Festival Internacional de Cine Documental de Montreal





**Oskar Alegria** (Iruña, 1973). Kazetaritza ikasketak egin eta El País egunkariaren *El Viajero* gehigarrirako hainbat bidai erreportai idatzi zituen. Enrique Vila-Matasek oniritziarekin, *Hiri ikustezinak* izeneko argazkilaritza egitasmo artistikoa osatu zuen. Nafarroako Unibertsitateko ikus-entzunezko gidaien masterreko irakasle da, eta 2013az geroztik Nafarroako Ikuspuntu zinema dokumentalaren nazioarteko jaialdiaren zuzendari artistiko lanak betetzen ditu. Bere lehenbiziko luzemetraia, Emak Bakia baita, munduko osoko dozenaka jaialditan erakutsi izan da, 15 sari jaso ditu eta 13 hizkuntzetan itzulia izan da. *Zumiriki* (2019) Veneciako Jaialdian estreinatu da.

«‘Zumiriki’ hitzak ‘uhartea ibaiaren erdian’ esan nahi du, eremu horretan hitz egiten zen eta dagoeneko galduta dagoen euskaraz. Film luze honek horrekin jokatu nahi du; hitza hondoratuta dago, uhartea bera bezala, baina zinemaren magiarekin bere azken hitza lapurtu diezaiokegu heriotzari».



**Oskar Alegria**

**ENTRADAS**

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

---

**INFORMAZIO ERABILGARRIA**

- Film guztiak jatorrizko bertsioan (JB) proiektatuko dira, gaztelaniaz azpitulatuak
  - BideOतिकe programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Informazio gehiago: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
  - Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea.
  - Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik bere web-orrian jakinarazita: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
  - Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.
- 

**LABURDURAK**

Z: Zuzendaritza

G: Gidoia

E: Ekoizpena / Ekoiztetxea

PE: Produkzio Exekutiboa

EA: Ekoiztetxe Asoziatua

DG: Diseinu Grafikoa

JB: Jatorrizko Bertsioa

PZ: Produkzio Zuzendaria

MA: Marrazketa

MU: Muntaia

M: Musika

S: Soinua

A: Argazkia

I: Interpreteak

# Programa

## PROGRAMA

NOIZ	ORDUA	PROIEKZIOA	+INFO
<b>1. SAIOA</b> OTSAILAK 4 Asteartea	19:00	<i>Woman (2019)</i> Raúl de la Fuente	8 or.
		<i>Brothers in Syria (2018)</i> Víctor Suárez Ballesteros	10 or.
		<i>Born in Gambia (2018)</i> Natxo Leuza	12 or.
<b>2. SAIOA</b> OTSAILAK 11 Asteartea	19:00	<i>Le ciel la terre et l'homme (2018)</i> Caroline Reucker	16 or.
<b>3. SAIOA</b> OTSAILAK 18 Asteartea	19:00	<i>[M]otherhood (2018)</i> Inés Peris eta Laura García	20 or.
<b>4. SAIOA</b> OTSAILAK 25 Asteartea	19:00	<i>Orbainak (2019)</i> Jorge Moneo	24 or.
		<i>Gogor atzea (2018)</i> Oier Fuentes	26 or.
		<i>Azken saskia (2017)</i> Oier Fuentes	28 or.

## PROGRAMA

NOIZ	ORDUA	PROIEKZIOA	+INFO
<b>5. SAIOA</b> <b>MARTXOAK 3</b> Asteartea	19:00	<i>Andrómedas (2019)</i> Clara Sanz	32 or.
<b>6. SAIOA</b> <b>MARTXOAK 10</b> Asteartea	19:00	<i>El escritor de un país sin librerías (2019)</i> Marc Serena	36 or.
<b>7. SAIOA</b> <b>MARTXOAK 17</b> Asteartea	19:00	<i>Una dedicatoria a lo bestia (2019)</i> nucbeade colectivo (Quiela Nuc eta Andrea Beade)	40 or.
		<i>Patchwork (2018)</i> María Manero	42 or.
		<i>Capas (2018)</i> Celia Dosal eta Roxana Popelka	44 or.
<b>8. SAIOA</b> <b>MARTXOAK 25</b> Asteazkena	19:00	<i>Zumiriki (2019)</i> Oskar Alegria	48 or.

Otsailak 4 > Martxoak 25

19:00. Golem Alhóndiga Zinemak

4€ / 3€ Az Txartelarekin. Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

# Zinema Az-n

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, zinea eta ikus-entzunezkoak modu zabalean lantzen ditugu, programazio egonkorren, estreinaldien, jaialdien, gaikako zikloen eta abarren bidez, Zentroko gainerako programazioarekin elkarrizketan, eta eragile eta erakundeekin lankidetzan.

Hurrengo BideOtik zikloari buruzko informazioa eskuratu nahi duzu? ►

## ZINEMATEKA

Zinematekak hiru hamarkadatik gorako historia du Bilbon, eta zinema klasikoko eta sorkuntza garaikideko programazioa du Alhóndigan. Gure ikus-entzunezko programazioaren oinarritzko zutabeetako bat da, eta aukera ematen digu hizkuntza zinematografikoaren jakintza sakonago aztertzeko, zirkuitu komertzialetik kanpo dauden lanen bidez. Ilbilde desberdina duten zinema-arloko hemengo eta nazioarteko adituekin lantzen dugu programazioa.

### Zinema klasikoak

2020an, Zinematekak aurrera jarraitzen du zinemaren historiako 'bitxi' eskainitako zinema klasikoaren zikloarekin. Zeharkako errepaso honetan, lehentasuna eman zaie kalitateari, titulu horiek guztien imaginarioan duten garrantziari eta arte honetan historia egin duten gizon-emakumeen ezinbesteko aintzatespenari.

### Zinema garaikidea

Aldi berean, aurtengo zinema garaikideko lehen zikloa *Women Make Film: A New Road Movie Through Cinema* izango da, Mark Cousins zinema-zuzendari eta -kritikariarena, eta lankidetzan egingo da Zinebirekin, Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiarekin. *Women Make Film (Emakumeek zinea egiten dute)* zinemaren historiaren azterketa bikaina da, eta munduko zuzendari onenetako batzuen lentea erabiltzen du: emakumezko zuzendariak dira guztiak. Tilda Swintonek, Jane Fondak eta beste batzuek kontatua; Mark Cousinsek idatzia eta zuzendua. Bizitza, amodioa, politika, umorea eta heriotza aletzen eta aztertzen dira, parerik gabeko road movie zinematografiko honetan.

## IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA

BideOtik, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren bideo-sorkuntzako programak, berariaz erreparatzen die ikus-entzunezko lexikoa erregistratu eta irudikatzeke beste modu batzuekin alderatuta izaera bereizlea duten sorkuntzei. Programa honen helburua da ikus-entzunezko sorkuntza artistikoa sorkuntzarako, gogoetarako eta kultura- eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa ikusaraztea, beste hizkuntza batzuen erabilera sustatuz, mugimenduan dagoen irudiaren eta arte digitalaren bidez. Formatuak balio bereizgarri handia ematen dio, sortzaileekin elkartzeko eta gogoeta eta elkarrizketa lantzeko gunea baita.

---

## JAIALDIEN EGOITZA

Alhóndiga hiriko jaialdi nagusien egoitza da. Hitzorduen artean honako hauek nabarmentzen dira: Zinebi, Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia; Zinexit, Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldia; Zinemakumeak Gara!, emakumeek zuzendutako Zinemaldia; Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia; Zinegoak, Bilboko Zinema eta Arte Eszeniko gaylesbotransen Nazioarteko Jaialdia; eta FANT, Bilboko Zinemaldi Fantastikoa.

Programazio hau egiteko, beste kultura-eragile batzuen konplizitatea izaten dugu, esaterako, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarena. Horri esker, lankidetzan indartu dugu haiekin, urtero Zinemaldian aurkezten diren filmen aukeraketa bat proiektatzeko.









# Jar zaitetz harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4  
48010 BILBAO



B

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

